

## Iruñan, Kanpion jaunaren etxean, 1934 - ko Oñilaren 22 - an.

Iruñan, Kanpion jaunaren etxean, bildurik gaude: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Eguskitza, Altube, Intza, Olabide, Elissalde, Intzagarai ta urgazletatik Ormaetxea eta Gorostiaga jaunak. Otoitz egin da.

I.— Iztegi beñiaren lanetan jardun degu. Altube jaunak oarpide batzuek dakarzki ta Garostiaga jaunari adierazten dizkio, jaun onek artu bai - du, bere bizkar, Iztegiaren azkeneko lan abek atontzea.

Altubek eta Gorostiagak itz egin digute luzaro ta ekañi dituzten irixpideak ontzat artu ditu Euskaltzaindiak.

II.— Lan abek bukatuta, Iztegia betetzeko itz-beñi biñe jardun degu ta batzuek autatu ta ontzat eman.

III.— Olabide jaunak, Arantzazutik ekañi digu Aita Basaberen txosten bat, Añibaño zanaren esku - idazki bat bide. Euskaltzaindiak gogoz entzun du. A. Basaberen txosten auxe gure EUSKERA-N argitaratuko da.

IV.— Azkue jaunak bere *Gipuzkera osotua* irakuñi digu. Ta beste gai batzuek uringo egunerako utzi dira, batzaraldia otoitzez bukatu rik.

---

## Iruñan, Kanpion jaunaren etxean, 1934 - ko Oñilaren 23 - an.

Euskalzain auek bildu gera: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde, Intzagarai ta urgazletatik Ormaetxea, Gorostiaga eta Irigarai Angel. Otoitz egin da.

I.— Eguskitza jaunak bere lan bat irakuñi digu: Leizaraga, Lardizabal eta Etxeparen liburuetatik eus-

kal-aditzaren aldakuntzak jaso ditu ta itz batzuek, aŕefaz aztertuak ere bai.

II.— Altube jaunak dio: euskal-aur-ikastola-lanak ez dirala utzi bear: arazo onetan beti zaitzan egotea on litzakela. Auxe adierazi bear litzaioke «Euskaltzaindiaren Laguntzaileak» bazkunari ta baietz erabaki du Euskaltzaindiak.

III.— Euskaltzaindiaren laguntzaileak iragaŕi digute beren batzar nagusia Donostian izango dutela datoŕen Uztan. Aita Intza izango da Euskaltzaindiaren ordeko.

IV.— Jose Ageŕe jauna, len euskaltzain izana, urgazle izendatu degu.

V.— Aita Lhande gure euskaltzainkide maitea, gaxo dagola jakin degu. Zinez atsegabetzen gaitu beŕi onek, eta beretzaz geiago jakin bear degu.

Besterik izan ez da otoitzez amaitu degu batzar-aldi au.

---

### **Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusiaŕ, 1934 - ko Garagarilaren 27 - an.**

Euskaltzain abek bildu giŕan: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Intzagarai. Urgazle jaunak beŕiz: Gorostia-ga eta Ormaetxea. Otoitz egin da.

I.— Jose Ageŕe jaunaren eskutitz bat irakuŕi da. Eskeŕak ematen dizkio Euskaltzaindiari bera urgazle, aŕeko batzar-efan, izentatu zuelako.